Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

2740

17/2011 DEKRETUA, maiatzaren 11koa, lehendakariarena, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko burua kentzeko eta izendatzeko dena.

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeak Gizarte Kontseilua arautzen du, Euskal Herriko Unibertsitatearen gobernuan eta zuzendaritzan gizarteak parte hartzeko organo bezala.

Aipatu Legearen 71. artikuluaren arabera, kontseiluburua lehendakariak izendatuko du, unibertsitate gaietan eskumenak dituen saileko sailburuak proposatu ondoren, eta izendapena lau urteko agintaldirako izango da.

Lehendakariaren urriaren 20ko 18/2010 Dekretuaren bitartez, Emilio Guevara Saleta jauna Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte kontseiluburu izendatu zen.

Lau urteko agintaldia igaro ez bada ere, Emilio Guevara Saleta jaunak Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte kontseiluburu kargutik kentzeko eskatu du.

Beraz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak proposatuta, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Emilio Guevara Saleta jauna Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte kontseiluburu kargutik kentzea, eta eskerrak ematea egindako lanarengatik.

2. artikulua.– José Manuel de la Sen Larrea jauna Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko buru izendatzea.

3. artikulua.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 11n.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

2740

DECRETO 17/2011, de 11 de mayo, del Lehendakari, por el que se dispone el cese y nombramiento del Presidente del Consejo Social de la Universidad del País Vasco.

La Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, regula el Consejo Social como órgano de la Universidad del País Vasco a través del cual la sociedad participa en su gobierno y dirección.

El artículo 71 de la referida Ley establece que la presidenta o presidente será nombrado por el Lehendakari, a propuesta de la Consejera o Consejero titular del Departamento competente en materia de universidades, con mandato de cuatro años.

Por Decreto 18/2010, de 20 de octubre, del Lehendakari, se nombró a D. Emilio Guevara Saleta Presidente del Consejo Social de la Universidad del País Vasco.

No habiendo transcurrido aún el mandato de cuatro años D. Emilio Guevara Saleta ha solicitado el cese de su condición de Presidente del Consejo Social de la Universidad del País Vasco.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación,

DISPONGO:

Artículo 1.– Cesar a D. Emilio Guevara Saleta como Presidente del Consejo Social de la Universidad del País Vasco, agradeciéndole los servicios prestados.

Artículo 2.– Nombrar a D. José Manuel de la Sen Larrea Presidente del Consejo Social de la Universidad del País Vasco.

Artículo 3.– El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de mayo de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.